

HERRI BURUJABETZA, BIZITZA ERDIGUNEAN JARTZEKO

Aurtengo Aberri Eguna, bizi dugun salbuespen egoerak baldintzatu dator. Osasun emergentzia baino harago doan krisia dugu parean eta horren eraginez bestelako aztergaiak lausotu egin dira tarte batez. Halere, Euskal Herriko langileok ditugun erronei modu egokiagoan aurre egin ahal izateko, gogoan hartu behar dugu Covid-19aren agerpenaren aurretik zegoen testuinguru ekonomiko eta soziala: krisi klimatikoa, erregai fosilen eta materialen agorpena, lehia eta eraso inperialistak, migrazio mugimendu erraldoiak, aberastasunaren banaketa geroz eta bidegabeagoa, boterearen kontzentrazioa, autoritarismoaren gorakada... Eta horren guztiaren aurrean, Euskal Herrian nahiz nazioartean krisi sistemikoarekiko alternatiba globala eraikitzen saiatzen ari diren eragile eta herritar andana.

Bi urte luzez izandako mobilizazio sozial maila handiaren ondotik, eta Ipar Euskal Herrian, pentsio erreformaren aurkako mobilizazio andanaren ondotik, etorri zen lan, pentsio eta bizitza duinaren aldeko Urtarrilaren 30eko Greba Orokorra Hego Euskal Herrian. Bi eredu arteko talka, kapitala vs bizitza, irudikatu ez ezik, eredu bakoitza nor defendatzen duen argi utzi zuen Grebak: batetik, alderdi sistemikoak, Patronalarekin lerratuta; bestetik, herri mugimendua, langile esparru zabala eta ezker soberanismoaren eremuan mugitzen garen eragileak.

Latza izan da urte hasiera hau langileontzat. Dagoeneko 21 dira lanean hil diren langileak eta bi langilek zabor azpian desagertuta jarraitzen dute. Beste hamaika dira laneko gaixotasunen ondorioz hildakoak; instituzioek ikusezin egin nahi duten errealitatea, askotan eskatu dugun arren, heriotz horiek ez baitira erregistratzen. Langileon osasuna bermatzea ez da lehentasuna ez patronalarentzat eta ez instituzioentzat ere, oraingo krisia oso argi uzten ari da hori.

COVID-19aren pandemiak agerian utzi ditu eredu kapitalista heteropatriarkalaren keriak. Gaixoak

artatzeko nahikoa osasun ohe eta baliabide ez dugula agerian utzi du, hamarkadetan zehar alderdi sistemikoek (EAJ, UPN, PP, PSOE, LREM) sektore publikoan eginiko murrizketak direla eta osasun sistema publikoa deskapitalizatu dutelako.

Zerbitzu publikoak merkantilizatu eta pribatizatu egin dituzte eta zaintzari begirako ikuspegi integralik ez dagoela agerian geratu da. Gobernuak haurrak etxera bidali dituzte euren gurasoak lanera behartzen zituzten bitartean; milaka adindu etxean isolaturik ala zahar egoitzetan gaixotzeko arrisku larrian utzi dituzte. Eta ezinbesteko ekonomia jarduerak soilik martxan jarraitzea behar-beharrezkoa den honetan, agerian geratu da nagusiki langile emakumeek, gehienetan baldintza prekarioetan, egiten duten lanaren garrantzia: garbitzaileak, saltokietako kutxazainak, adinduen zaintzaileak, etxeko langileak.

Kasu askotan, Osasungintzan ari diren langileak, haien guztien lana —aipatu kolektiboenarekin batera— ezinbestekoa izan arren, behar bezalako babes neurri egokirik gabe lan egin behar izan dute. Irudi benetan lotsagarriak uzten ari da krisi hau, langileen osasuna arriskuan jartzeaz gain, artatzen dituzten pertsonen biziak arriskuan jarri eta pandemiaren hedapenari mugak jartzea eragotziz. Horregatik guztiagatik diogu sistema bera dela bizitzarentzako arriskurik handiena. COVID-19aren pandemiaren gailurra gaituko dugu halako batean; afera da: noiz gaituko dugu bizitzaren jarraipena kolokan jartzen duen sistema dekadente hau?

Kapitala babestu eta Estatuak indartzeko salbuespen egoera ezarri dute. Pandemiari osasun irizpideen arabera aurre egitea baino, Kapitalaren interesak babestea eta estatuaren legitimitatea indartzea da Gobernuen lehentasuna. "Gerran gaude" adierazi du Macronek; Espainiako Gobernuak uniforme bete ditu prentsaurrekoak eta militarrez kaleak, zentralizazioa inposatuz eta kontrol soziala ezarriz. Aspaldi honetan



kolokan dago Estatuaren legimitatea eta, aurretik yihadismoa edo Notre Dammeko sutearekin egin bezala, birusa etsai hartuta jendartea diziplinatzeko aukera gisa ikusi dute Frantziako zein Espainiako Estatuak. Bere politika neoliberalerako oposizioa desegin nahi du Macronek; Monarkiaren ustelkeria eta 78ko Erregimenaren krisia estali nahi Sanchezek; biek ala biek herritarrak egiten dituzte pandemiarekin amaitzearen erantzule. Izan ere, klima aldaketarekin edo krisi ekonomikoarekin egin bezala, oraingoan ere erantzunkizuna ez omen da osasun sistema murriztu, zaintza lanak gutxietsi, balore komunitarioak ahuldu eta Patronalaren mozkinak erdigunean jartzen dituen sistemarena.

Patronalaren neurria egindako autogobernua da Urkulluk eta Chivitek defendatzen dutena. Pandemiaren aitzakian Espainiako Gobernuak ezarritako ezkutuko 155. artikuluaurrean ez da egon haien aldetik inolako erantzunik autogobernuaren defentsan; ezinbestekoak ez diren ekonomia jarduerak ixteko erabakiaren aurrean, berriz, sutsu baino sutsuago ikusi ditugu afera horren inguruko erabakiak EAEn eta Nafarroan hartzearen alde.

Agerian geratu da, beraz, zer nolako autogobernua den defendatzen dutena: Confebask eta CENen interesen neurrikoa. Urtarrilaren 30eko Greba Orokorren harira, 1.200 euroko gutxienerako soldata edota 1.080 euroko gutxienerako pentsioa ezartzeko eskumenik ez zutela argudiatu zuten biek. Patronalaren interesen defentsa sutsuan arduragabekeria handiz jokatzeko ari dira. Orain, berriz, ekonomia jardueraren etenari dagokionean eskumenik izan ez arren, ahalegin guztiak egiten ari dira eten hori eragozteko, nahiz eta jakin, horrek langileen osasuna arriskuan jartzen duela. Langileen alde egiteko orduan eskumen ezaren aitzakia erabiltzen duten berberak lobby lana egiten dute Patronalaren alde.

Ez dugu utziko krisi hau langileok ordain dezagun. Birusak ez omen du klaseen arteko bereizketarik egiten, guztiok egin behar omen diogu aurre honi, baina guztiok ez goaz ontzi berean. Hartzen ari diren neurriak langileok babesteko baino, kapitala babesteko izan dira. Oraindik 2008ko krisiaren ondorioak pairatzen ari

gara; errezeta neoliberalerako prekarizazioaren hedapena ekarri dute. Ikaskizunak atera ditugu eta, nahiz patronal zein instituzioen aldetik, krisi honen amaieran politika neoliberalerako sakontzeko asmoa izango den, Euskal Herriko langileok bizitza erdigunean jarriko duen eredu baten aldeko borrokari eutsiko diogu.

Herri burujabetza nahi dugu, bizitza erdigunean jartzeko. Kapitalaren zerbitzura aritzen diren Estatu bien eta euren menpeko administrazio autonomikoen aurrean, herri burujabetza eta berau ahalbidetuko duen Errepublikan independente, sozialista eta feminista aldarrikatzen du LABek.

Herri burujabetza aldarrikatzen dugu, ekonomiaren gaineko kontrol publiko eta soziala eskuratzeko; zaintza sistema integrala garatzeko; lan guztiak aitortu eta duinduko dituen langileen estatutu propioa osatzeko; guztion arteko interdependentsia, baita ekodependentsia ere, aitortzeko; herritar orori pentsio duina bermatuko dion gizarte segurantzaren sortzeko; premiazkoa den trantsizio ekosozialista abiatzeko; bizitzaren sostengarritasuna xede izango duen jendarte eredu feminista eratzeko.

Bizi dugun krisia globala da eta alternatiba globala eskatzen du; baina alternatiba global hori, eraikitzekotan, herriz herri, behetik gora eraikiko da. Abestiak zioen bezala: mundu berri bat nahi dugu, herri bakoitzak beretik emanetz! Borroka gaitzearen haren alde. Eta hemen, Euskal Herriko langileriak geuretik jarritz. Batera-k egindako deiaren haritik, Aberri Egunean Ikurrinarekin eta Nafarroako banderarekin batera, geure balkoiak langileon aldarrikapen anitzekin janzteko deia egiten dugu LABetik.

Euskal Herrian, 2020ko apirilean



SOBERANÍA POPULAR PARA PONER LA VIDA EN EL CENTRO

El Aberri Eguna de este año viene marcado por la situación excepcional la que vivimos. Estamos ante una crisis que va más allá de una emergencia sanitaria y, por ello, otras cuestiones a analizar han pasado a un segundo plano, por el momento. No obstante, para afrontar de forma adecuada los retos de la clase trabajadora de Euskal Herria, conviene recordar el contexto económico y social anterior a la irrupción del COVID-19: crisis climática, agotamiento de combustibles fósiles y materiales, disputas y ataques imperialistas, movimientos masivos de migración, reparto de riqueza cada vez más injusto, concentración del poder, auge del autoritarismo... y frente a todo esto, infinidad de agentes y ciudadanas y ciudadanos que intentan construir, tanto en Euskal Herria como a nivel internacional, una alternativa global a la crisis sistémica.

La huelga del 30 de enero, en favor de un trabajo, unas pensiones y una vida dignas vino después de dos años de movilización social muy importante en Hego Euskal Herria, y acompañado por un sinnúmero de movilizaciones contra la reforma de las pensiones en Iparralde. Además de servir para mostrar la confrontación entre dos modelos, capital versus vida, la Huelga dejó en evidencia quiénes defienden cada uno de esos modelos: por un lado, quienes están del lado de la patronal; por otro lado, el movimiento popular, un amplio espacio de la clase trabajadora y los agentes que nos movemos en el ámbito de la izquierda soberanista.

Este comienzo de año ha sido muy duro para la clase trabajadora. Por el momento, son 21 las y los trabajadores que han perdido la vida en el trabajo y dos trabajadores continúan desaparecidos, bajo la basura. Otras y otros muchos han muerto a consecuencia de enfermedades laborales, una realidad ocultada desde las instituciones, porque estas muertes no se registran, pese a que lo hemos exigido infinidad de veces. La salud de las y los trabajadores no es una prioridad ni para la patronal ni para las instituciones, algo que está quedando muy claro en la actual crisis.

La pandemia del COVID-19 ha dejado en evidencia las carencias del modelo capitalista heteropatriarcal.

Ha sacado a relucir que carecemos de camas y recursos suficientes para atender a las personas enfermas, puesto que los recortes realizados durante décadas en el sector público por los partidos sistémicos (EAJ, UPN, PP, PSOE, LREAM) han descapitalizado el sistema público sanitario.

Han mercantilizado y privatizado los servicios públicos y ha quedado en evidencia que no hay una visión integral de los cuidados. Los gobiernos han mandado a casa a las y los niños mientras obligan a sus padres y madres a ir a trabajar; han dejado a miles de personas mayores en casa, aisladas, o en las residencias expuestas a enfermar. Y en un momento en el que urge mantener en funcionamiento únicamente las actividades esenciales, ha quedado clara la importancia del trabajo que desempeñan principalmente las mujeres, casi siempre, en condiciones precarias: limpiadoras, cajeras de tienda, cuidadoras de personas mayores, trabajadoras del hogar.

En lo que a los y las trabajadoras del ámbito sanitario se refiere —al igual que ocurre con los colectivos mencionados— pese a que su labor es imprescindible, han tenido que trabajar en numerosos casos sin las medidas de protección adecuadas. Esta crisis está dejando imágenes lamentables, puesto que, además de poner en riesgo la salud de las y los trabajadores, se está poniendo en peligro la vida de las personas y se está dificultando poner freno a la propagación de la pandemia. Por eso decimos que el propio sistema es el mayor peligro para la vida. Un día de estos superaremos el techo de la pandemia del COVID-19; el asunto es, ¿cuándo superaremos este sistema decadente que pone en entredicho la continuidad de la vida?

Se ha generado una situación excepcional para proteger al capital y fortalecer a los Estados.

En lugar de hacer frente a la pandemia a través de criterios sanitarios, la prioridad de los gobiernos es la defensa de los intereses del capital y el fortalecimiento



de la legitimidad del Estado. "Estamos en guerra", ha declarado Macron; el Gobierno español ha llenado de uniformes las compareencias de prensa y de militares las calles, imponiendo la centralización y estableciendo el control social. La legitimidad de los Estados está entredicho desde hace tiempo, por lo que, tal y como hicieron anteriormente con el yihadismo o con el incendio de Notre Dame, los Gobiernos francés y español han visto la oportunidad de disciplinar a la ciudadanía con el virus como enemigo. Macron quiere deshacer la oposición a su política neoliberal; Sánchez pretende ocultar la corrupción de la Monarquía y la crisis del Régimen del 78; ambos responsabilizan a la ciudadanía del fin de la pandemia. Según ellos, al igual que con el cambio climático o la crisis económica, esta vez tampoco es responsabilidad de un sistema que recorta en Sanidad, menosprecia los trabajos de cuidados, debilita los valores comunitarios y apuesta por las ganancias de la patronal.

Urkullu y Chivite defienden un autogobierno a la medida de la patronal. Ante el art. 155 encubierto establecido por el Gobierno español con la excusa de la pandemia, no se ha producido ninguna respuesta en defensa del autogobierno; ante la decisión de paralizar las actividades económicas no esenciales, en cambio, les hemos visto tremendamente alterados y alteradas a la hora de proclamar que las decisiones se tomen en la CAV y en Navarra.

Por lo tanto, ha quedado en evidencia qué clase de autogobierno defienden: un autogobierno a la medida de los intereses de Confebask y la CEN. Al hilo de la Huelga General del 30 de enero, Urkullu y Chivite argumentaron no tener competencias para establecer un salario mínimo de 1.200 euros o una pensión mínima de 1.080 euros. Actúan con gran irresponsabilidad al defender, firmemente, los intereses de la patronal. Ahora, aunque no tengan competencias respecto a la paralización de la actividad económica, están haciendo todo lo posible para evitar que esto suceda, a pesar de saber que esa posición pone en riesgo la salud de las y los trabajadores. Los mismos que ponen la excusa de falta de competencias a la hora de posicionarse en favor de las y los trabajadores, realizan una labor de lobby en defensa de la patronal.

No permitiremos que los y las trabajadores paguen esta crisis. Al parecer, el virus no entiende de clases

y debemos hacerle frente entre todas y todos. Todas las personas no estamos en el mismo barco. Tal y como hemos señalado anteriormente, las medidas que se están adoptando son para proteger al capital, no a la clase trabajadora. Todavía estamos sufriendo las consecuencias de la crisis de 2008, las recetas neoliberales han supuesto la expansión de la precariedad. Hemos aprendido de todo esto y, por mucho que la patronal y las instituciones pretendan profundizar en sus políticas neoliberales al finalizar esta crisis, la clase trabajadora de Euskal Herria seguirá firme en la lucha por un modelo que ponga la vida en el centro.

Queremos soberanía popular para poner la vida en el centro. Ante los dos Estados y las administraciones bajo su mando, LAB reivindica soberanía popular y una República independiente, socialista y feminista que la garantice.

Reivindicamos soberanía popular para lograr el control público y social sobre la economía; para desarrollar un sistema de cuidados integral; para constituir un estatuto propio de las y los trabajadores que reconozca y dignifique todos los trabajos; para reconocer la interdependencia de todas las personas, así como la ecoddependencia; para construir una seguridad social que garantice una pensión digna a toda la ciudadanía; para iniciar una urgente transición ecosocialista; para desarrollar un modelo de sociedad feminista que tenga como fin la sostenibilidad de la vida.

La crisis que vivimos es global y requiere una alternativa global que se construya pueblo a pueblo, de abajo arriba. Como decía la canción: mundu berri bat nahi dugu, herri bakoitzak beretik emanaz! (queremos un mundo nuevo, con todo lo aportado pueblo a pueblo). Luchemos por ello, aportando también nuestro granito de arena como clase trabajadora de Euskal Herria. Al hilo de la convocatoria de Batera, desde LAB llamamos a cubrir los balcones con las diversas reivindicaciones propias de las y los trabajadores, como no, junto con la Ikurriña y la bandera de Nafarroa.

Euskal Herrian, abril de 2020

